Etxebarria
udala

KONTRATUAREN MEMORIA JUSTIFIKATIBOA

Kontratu mota: Zerbitzu kontratua

Espediente zenbakia: B030-2026-00013

Esleipen prozedura: Prozedura ireki sinplifikatua

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA (EZ-ZATITZEAREN JUSTIFIKAZIOA) ETA CPV KODEAK:

Ezin izango da kontratu bat zatitu, kontratuaren zenbatekoa murriztu eta horren ondorioz, legeaz ezarritako publizitate eta prozedurei dagozkien betekizunak saihestu ahal izateko. Memoria honen bitartez egiaztatu egiten da lege-betebehar hori ez dela urratu, eta kasu honetan aplikatuko den Prozedura Ireki Sinplifikatua izango da. Prozedura honen aukeraketak, legeak ezarritako zenbatekoen mugak errespetatuz egiten da.

Beste aldetik, kontratu honi dagokion CPV kode nagusia hauxe izango da:

90911200-8 Edifizioen garbiketa zerbitzuak. (Nagusia)

2. ASE BEHARREKO BEHARRIZANAREN JUSTIFIKAZIOA:

Kontratu honen objektua udal edifizioen garbiketarako zerbitzua da. Udalaren titulartasunpeko ondasunen eta jabari publikoko komunen mantenimendua behar bezala burutzeko eta kasu honetan, garbiketa zerbitzuak lizitatzeko beharra egikaritzeko betebeharra betetzea du helburutzat.

Herriko gimnasioko aldagelak eta herriko haurtzaindegia garbitzea du helburutzat urte osoan zehar. Gainera, abuztuko hilabetean, udalaren lan plantilako garbitzailea oporretan egotearen ondorioz, gimnasioaren garbiketa orokorra, udaletxeko komunen garbiketa eta komun publikoen (Peñanekua plazakoen eta frontoikoen) garbiketa ere egin beharko da.

Urtero errepikatzen den kontratu bat izatean, kontratu txikiaren prozedura ez da egokia udalaren beharrizan hau legearen xedapenekin bat asetzeko. Gainera, lizitazio honen bidez espero da zerbitzuaren zenbatekoa murriztea.

3. LOTEKA BANATZEAREN JUSTIFIKAZIOA:

SPKLren 99.3 artikuluarekin bat etorriz, Kontratazioari buruzko Zuzentarauaren 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, kontratuaren izaerak edo xedeak ahalbidetzen badute, zati bakoitza modu independentean gauzatzea aurreikusi beharko da, lotetan banatuz, eta loteak erreserbatu ahal izango dira, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren objektua lotetan ez zatitzeko, baldin eta arrazoi baliodunak badaude. Arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira espedientean.

Kasu honetan, ez da kontratua lotetan zatituko, kontratuaren objektuan jasotako prestazioak modu independentean gauzatzeak zaildu egingo lukeelako kontratua ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea. Prestazioak emateko lana koordinatu beharra ekarriko lukeelako, eta hori ezinezkoa izan liteke, hainbat kontratista desberdinek lotetan banatu eta gauzatu beharko luketelako.

Azken finean, proiektu honen emaitzaren egokitasunak lotura dauka kontratuaren parte ezberdinen integrazio eta koordinazioarekin. Koordinazio eta integrazio horien egokitasuna arriskuan egongo litzateke kontratua lotetan banatuko balitz.

4. KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA AUKERAKETA ETA IRIZPIDEAK ZEINTZUK IZANGO DIREN JUSTIFIKATZEA:

Kontratu hau tramitazio arruntaren bidez bideratuko da. Gainera, aukeratutako esleipen prozedura, Prozedura Ireki Sinplifikatua da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017. Legearen 159.artikuluaren arabera.

Lehenik eta behin, automatikoki edo formula bidez kuantifika ez daitezkeen irizpideek izan dezaketen gehienezko balorazioa 24 puntukoa izango da. Horien banaketa hauxe izango da:

-Kontratu exekuzioaren metodologia eta memoria teknikoa 10 puntukoa izango da eta bete beharrezko ezinbesteko betekizunak plego administratiboetan finkatuko dira.

-Kontratuaren objektu diren eginbeharrekoen programazio eta planifikazioa 10 puntukoa izango da eta zehaztu beharreko “planning”-a, exekuzio xehetasunak eta beste hainbat aspektu adieraziko dira plego administratiboetan.

-Euskararen erabilpena esleipen prozeduran, berorri lehentasuna emanez, 4 puntukoa izango da. 4 puntu horiek jaso ahal izateko, memoria teknikoaren euskarazko aurkezpena egin beharko da. Aurkezpen horrek atal honen gehienezko puntuazioa jaso ahal izateko eskubidea aitortu du, beti ere memoria teknikoak onartu ahal izateko irizpideak betetzen baditu.

Beste aldetik, automatikoki kuantifika daitezkeen irizpideek kontratu honetan 76 puntuko gehienezko ponderazioa izango dute. Horien banaketa honela egingo da:

-Eskaintza ekonomikoaren gehienezko balorazioa 56 puntukoa izango da eta plegoetan zehaztutako formularen arabera kalkulatuko da lizitatzaileek lortutako puntuazioa.

-Hobekuntzen gehienezko balorazioa 20 puntukoa izango da. Ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari 20 puntu emango zaizkio eta gainerako eskaintzak modu propotzionalean kalkulatuko dira.

Irizpide hauen aplikagarritasuna eta ponderazioen zergatiak anitzak dira. 9/2017. Legeak zehaztutako kalitate-prezio erlazio hoberena bilatzea dute helburu, eta erlazio horren emaitza onena lortzeko udal teknikariek erabaki dute irizpide guzti hauek erabiltzea.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA (BERME-EPEA, LUZAPENEN AUKERA ETA KONTRATU-ALDAKETA):

Kontratua egikaritzeko epea 3 urtekoa izango dela ezarri da. Kontratazio-organoak erabaki du ez dela isilbidezko luzapenik ezarriko. Ondorioz, kontratua luzatzeko erabakia hartzen bada, erabakia berariaz komunikatu beharko zaio kontratistari kontratua amaitu baino gutxienezko bi hilabete lehenagoko epean. Hala ere, kontratua iraungitzeko momentuan ez balitz kontratu berria esleitu eta interes publikoko arrazoiak egonda eta justifikatuta, kontratuaren jarraipena derrigorrezkoa izango da kontratua esleitu arte.

Ondorioz, kontratista berandutza epean sartuko balitz obrak epe horretan ez burutzeagatik, 9/2017.Legearen 193.artikulua aplikatu beharko litzateke, plegoetan zehaztasunez azalduko dena.

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 203. artikulutik 207. artikulura bitartean eta 242. artikuluan esanbidez jasotako kasuetan eta baldintzetan, betiere horrekin ez badira aldatzen lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.

Gorago adierazitako aldaketa horiek bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat. SPKLren 242.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuan ez datozen obra-unitate berriak sartu behar badira kontratuko aldaketak direla-eta, administrazioak finkatuko ditu aldaketa horien prezioak, eta, kontratistak onartzen ez baditu, kontratazio-organoak aukera izango du obra-unitate horiek beste enpresaburu batekin kontratatzeko finkatutako prezioetan, edo obrak zuzenean egikaritzeko.

6. OINARRIZKO LIZITAZIO AURREKONTUAREN KALKULUA:

Oinarrizko lizitazio aurrekontuaren eta balio zenbatetsiaren kalkulua honela burutu dira:

-Langile bakar batek enpresari sorrarazitako kostua 100% lanaldiarengatik urte batean zehar: 36.354,00€.

-Langile bakar batek enpresari sorrarazitako kostua 30,55% lanaldiarengatik urte batean zehar: 11.106,15€.

-Langile bakar batek enpresari sorrarazitako kostua 30,55% lanaldiarengatik hiru urtetan zehar: 33.318,48€.

-Bataz besteko urteroko %2ko soldata igoera: 666,37€.

-Gastu orokorrei dagokien %13a: 4.418,03€.

-Etekin industrialari dagokion: %6a: 2.039,09€.

-Balio zenbatetsia: 40.441,97€.

-BEZ-ari dagokion %21a: 8.492,81€.

-Oinarrizko lizitazio aurrekontua: 48.934,78€.

Zerbitzuaren kostua kalkulatzeko erabilitako erreferentziazko hitzarmen kolektiboa Bizkaiko lokal eta edifizioen garbiketarako hitzarmen kolektiboa da.

Kontratuaren prezioaren barnean barneratuko dira enpresa kontratistari dagozkion zuzenezko eta zeharkako gastu guztiak (makineria, arropak, produktuak, etab.), baita enpresa kontratista ordaindu beharreko gainontzeko zerga, tasa edo beste kontzeptu guztiak ere bai.

7. ORDAINTZEKO MODUA ETA AURREKONTU-PARTIDA:

Egikaritutako zerbitzuak ordaintzeko, esleipendunak zerbitzuen faktura bat igorriko du hilero, zenbateko globalari dagokion zati proportzionalaren truke. Faktura horrek legez ezarritako betekizunak bete beharko ditu, baita plegoetan ezarritako betekizun gehigarriak ere bai.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturetan jasotzearren, honako hau adierazi behar da: Kontu-hartzailetza da kontabilitate publikoaren arloan eskumena duen organoa; Alkatetza da kontratazio-organoa, eta Administrazio orokorra da unitate hartzailea.

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurreikusita dago urteko aurrekontuaren konturako finantzaketa, 337.21101 "*Konponketak eta mantenim. (frontoetxekoak)*" eta 320.21101 "*Konponketak eta mantenim. (eskola/ liburutegikoa)*" aurrekontu-aplikazioetan. Organo eskudunak etorkizunean dagozkien kredituak erreserbatzeko konpromisua gain hartzen du.

Sinadura elektronikoaren datan.

Udal Idazkari-Kontuhartzailea

-Aratz González Pereda-

ARATZ
GONZALEZ
PEREDA -
79231891L
2026.10.15
13:04:56 +02'00'